

Gaztañerre azoka  
badator ate joka...  
uummm!!!!  
aurten **BABAJANA**




AZAROAREN 10IAN

## GAZTAÑERRE AZOKA ERREGETXIAN



40 Taldek sinatu dabe  
Bai Euskarari akordiu  
herrixan





**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL, S.A. Industriak**  
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

## **PIL BAZKIDE KANPAINA GAZTAÑERRE FERIXAN HASIKO DA**

**P**il Pileanen bazkide kanpaina barrixa Gaztañarre ferixan hasiko da.

**P**astak saltzeko jarriko dogun postuan batuko dittugu dittugu bazkide barrixen izenak eta espero dogu asko izatia. Azaruan ziar be, Udaletxe parian jarriko dogu mahaixa, bere laguntza emon nahi daberen danak, aukeria euki deizen.

**J**uan zan urtian bazkide egin zinetenori, gutun bat bialduko dotsuegu eta ondoren deittu, kontu korronte zenbakixa eskatu eta kobraketak bankutik egin ahal izateko.



**Pil Pilean da etorkizuneko apostua.**

## Editoriala

**H**erriko girua nahi baino gehiago aldrebesturik daukau azken aldi honetan. Alde batetik heriotzak dirala, bestetik bapateko atxiloketa bortitzak dirala... Euskal Herri mailan bizitzen dogun norixa bukaezin honen itzala da herrixan gertatzen dana. Danak izango dittue euren arrazoiak, baita bestieri esan biharrak be, baina azken finian, beliak zozuari ipurbeltz!. Argi daguan gauza bakarria euskaldunori bakegintzaren bidian zati luzia gelditzen jakula da, eta zati hori danon artian ibili biharko dogu, inor kanpua laga barik, lehen esandako moduan, noriak beste buelta bat emongo dau bestela, baina toki berdineria bueltatuz.

Azken hilabete honetan, gaiz aldatuz, beste gauza aipagarri asko be pasau dira herrixan, Bai Euskarari planaren gauzatzen beste pauso garrantzitsu bat emon da ta. Gauza pozgarria da dudarik barik. Baina poztasun gitxi emoten daben gauzak be pasau dira, hasieran komentatu doguzenetaz aparte, demaseko istripua be egon zan oin dala 3 bat aste bariantian...

Amaitzeko, komentau, denporia poliki poliki aurrera doiala, eta urtia bukatzen doian ehinian Gaztañerre azoka laster dogula gainian (baita kuadrilen babajana be). Enterau gara, gainera, herrixan ehun urte betetzen dittuan "gazteren" bat be badaguala tartian, harek ehungarren gaztañerre eguna beteko dau. Beraz, zorionak Sebastiana !

### TELEGRAPAK:

PIL PILEANen ongi etorriak dira bertan parte hartu nahi daben pertsona guztiak, ahal izanez gero 8 urtetik gorakuak mesedez. STOP. Ostegunero biltzen gara, gaueko 9etan maisuen etxian, frontoian ostian. STOP. Bazkideen berritze kanpaina laster jarriko dogu abian, beraz, adi egon, eta bide batez, aurten bazkide izan zarien guztiori **ESKERRIK ASKO!** STOP. Ia herriko obrak amaitzen diran, aparkaleku faltan gabiz eta... STOP. Formalak izan eta hurrengo alerarte.

## Kolaborazioa



# 69

**Maite Etxeberria**

**I**zenburuari begiratuta norbaitek pentsa lezake sexuari buruz arituko naizela edo deabruaren inguruan edo auskalo zeren gainean. Ez, horixe! Oraingo honetan Matematikak ematen didan aukera aprobeztatuz zenbakien joko bat aurkeztuko dizuet. Jokoa bai, baina joko serioa; serioa ilegalitatea, injustizia eta eskubideak ez errespetatzearekin zerikusia daukalako. Has gaitezen, ba!

6+9=15 ordu dira behar direnak Pedro Jose Etxeberria preso bisitatzeko. Pedro Jose Castelloko gartzelan dago; Castellora autoz joan eta bueltatzen bazara, gelditu gabe, hamabost ordu behar dituzu. Garraio publikoa erabiliz gero ostiral gauean irten behar duzu Sorluzetik, larunbatean zure senide edo lagunarekin 40 minutuko bisita egin eta igande eguerdian Sorluzera heldu.

15-6=9 ordu dira behar direnak Lurdes Txurruka preso Avilako gartzelan bisitatzeko. Autoa hartu Sorluzen, Avilaraino joan, 40 minutu egon zure lagun edo senidearekin, berriro autoa hartu eta Sorluzeraino etorri. Beste horrenbeste Angel Murgoitioarekin egoteko Alcalako gartzelan. 9-6=3 alderdi politiko izan ziren irailaren 10ean dispersioaren kontra agertu zirenak. Sorluzeko Udalak mozio bat onartu zuen dispersioa salatuz. 6/3=2 dira bi, eta ezin ditugu ahantzi. Asierrek eta Iñakik, Lurdes bisitatzera zihoazenean bizia galdu zuten; aldean aste osoko lanaren nekea, ordurako heltzeko ardura eta hainbeste kilometro egin beharra zeramaten. Zer dela eta hain bidaia luzea? Zer dela eta Legea aplikatu ez eta ilegalitatean dihardutenak epaitzen?

100daka dira astero-astero euren senide edo laguna bisitatzeko 100daka kilometro egiten dutenak, euren bizia arriskuan jarri: 80 urteko gurasoak, 35 urteko neska-mutil laguna, 20 urteko anai-arreba, 40 urteko lehengusu-lehengusina, 6 hilabeteko seme-alaba, 50 urteko laguna...

11 dira urratzen diren eskubideak: osasuna zaintzeko neurririk ez hartzea, zigorraren 3/4 bete ondoren kalera irten barik jarraitzea, euskeraz komunikatzen ez uztea, ikasteko behar dituzun materialak izaten ez lagatzea, zure etxetik hurbil ez egotea, lagunei bisitatzeko instantziarik ez ematea, isolatuta egotera behartzea...

1000ka lagunek eskatu dute "Euskal Presoak, Euskal Herrira" bete dadila, hori baita Legeak dioena: "presoak bere jaioterritik ahal den eta hurbilen egon behar du"; gehiengo sozial zabala honen alde dago. Eskubidea dugulako, bada garaia noizbait dezagun Euskal Presoak Euskal Herrira ekar.



39.  
alea

Argitaratzailea:  
**Pil Pilean Kultura Elkarte**

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amara Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal,  
Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,  
Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar,  
Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

E-maila: [Pilpilean@euskalnet.net](mailto:Pilpilean@euskalnet.net)

Inprimategia: Gertu Koop.

Publizitatea: Jon Oregi

Lege-gordailua: SS-537-2.000

(943751304 tel.)

C.I.F.-a: G20696563

Banaketa: Pil Pilean

Azala: Aitor Madrid

ekoizpena: 1.850 ale

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

ALDIZKARI HONEK ERAKUNDE HAUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU EUSKARA BULTZATZEKO.



SORLUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### Soraluzeko lagun talde bat

Gutun honen bitartez adierazi nahi dizueguna zera da:

Beste urteetan bezala, Kilometroetara joateko autobusa hartu dugu aurten PIL PILEANEK antolatuta, eta oso antolakuntza txarra egon dela esateko idazten dizuegu.

Beasainera joateko irteeran, tiketak hartu zituzten eta hau da nire galdera. Nola dakite bueltan nor datorren autobusean inork ez badu bere tiketa agiri moduan ?, hau da, autobusean edozein pertsona sartu daiteke ordaindu gabe, gertatu zen bezala.

Beste gauza bat, autobusean inork ez zuen lista pasatu ez irteeran, ez bueltatzeko orduan.

Ettxera bueltatzeko ordua 8etan zen eta han agertu giñenak betikoan giñen, betiko jende gazte eta gu urtero bezala. Baina hau ez da getatu zen onena, autobusaren arduradun biak ez ziren agertu eta gure autobusa joan egin zen, arduradunak han utzita.

Hori da gutun honen bitartez adierazi nahi duguna.  
????????

### Euskalgintzako lagun taldeak

**Pozgarria da horren gazte arduratsu eta hain ongi formatuak izatea herrian.** Gustora irakurri dugu zuen gutuna, baina zuek bezala guk ere badaukagu zer esana:

1- Joan zen urtean ez zen Kilometroetarako autobusik jarri.

2- Autobusa Soraluzeko Euskalgintzak antolatuta du eta ez Pil Pileanek.

3- Antolatzaileak gara, ez inspektore etikoak. Bakoitzak jakingo du zer egiten duen, ordaintzen ez duenetakoa bada, beretzat txarrago. Berak da benetako arazoa duena. Zorionez ez dago horrelako asko, ze gutxitan bezala parra egin genuen gastuekin.

4- Antolatzaileak gara, ez begiraleak. Joateko ordua eta bueltatzeko ordua zein ziren, argi esan zen. Lista pasatu ala ez, falta dena falta da eta iritsi arte itxoin egin behar. Hala eskutik helduta erabili behar dugu jendea. Nagusitxoak gara ezta ?

5- Ez da kasualitatea, Beasainen inor ez gelditzea. Lista pasatzen duten antolatzaile askok uzten dute jendea "ordua pasatu delako", guk ez.

6- Bidali genituen antolatzaileak parrandero xamarrak dira, baina pertsona onak. Ala ez ?

7- Arduraduna behar al duzue autobusean sartu, 1. Autobusa bete dela konturatu eta gidariari "Bueno hi, juaziak !" esateko ?

Egia da antolakuntza ez dela onena eta bikainena baina ezta zuek margotu duzuen bezain "txarra" ere. Gauza asko esatea ahaztu zaizue:

1- 1.000 Pezeta kobratu genituela. Autobusa ordaintzeko behar zena justu justu edo gutxiago.

2- Ez dugula duro bat atera, ez guretzat (ezta nahi ere) eta ezta elkartearendako ere (beharra baduen arren).

3- Ostiralean, 1. autobuserako 20 pertsona gehiagok izena emanda zeukatenean erabaki genuela 2. autobusa jartzea. Diru zuloa egiteko arriskua izan arren, 20 pertsona horiek eraman behar genituela uste genuelako.

4- Ez diguzuela esan beharrekoa aurpegira esan, esan duzuen ez delako horrela jokatzeko bezain garrantzitsua baina bai mingarria.

5- Ez dugula egiten ditugun ekitaldi eta antolakuntzegaitik omenaldirik jaso nahi, baina horrelako esker txarrik ere ez. Gauzak esateko eta esateko moduak daude eta zuen esateko modua ez da oso atsegina.

6- Guk nahi dugun gauza bakarra, jendeak euskara eta euskal kulturaren inguruan antolatzen ditugun ekitaldietan ondo pasatu eta parte hartzea dela. Eta garrantzitsuena, maitasuna eman eta jasotzea ere bai.

Hala ere, zein zineten esan izan bazendue, tragotxo bat izango zenukie geuk (personalki, ez elkartiak) ordainduta, oiñ bapez.

Datorren urtian antolaketa hobia egitten lagunduko doskuzuelakuan. Muxu bana, (gaztetxoak zaretenez) bekokian:

**Soraluzeko Euskalgintza**

**Oharra:** Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna **27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze**. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**  
zuri esker  
gracias a ti

**OSIÑA**  
**KARROZERIAK**



Sagar Erreka, 27  
69 Posta Kutxatila  
Tfnoa 943 75 17 79  
20590 SORALUZE

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**



Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69

**Javier Alonso Zelaieta**  
Hortz klinika



Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13



# Lasai sartuko zinake hegazkin baten ?



Jose Anjel Gamazo (Tati)  
22 urte  
langilia

**B**ai, ez dakit. Printzipioz bai, baina Ameriketara gertatu diran bahiketak eta gero, ez nintzake trankil juango. Dirua baldin baneuka juango nintzake.




Idoia Aldazabal eta  
Aitor Barrutia  
39 urte  
langilia

**B**ai. Uste dot oiñ seguruaa izango dala. Jentia lasaitzeko ondo pentsatzen jata seguridadia ipintzia. Larregi larritzen gara askotan.



Jose Luis Catalan  
43 urte  
langilia

**B**ai, dudarik bare. Amerikanua ez dan bittartian. Ez, benetan, ni edozein garraiotan juaten nahiz trankil eta abioia seguruaa danez trankilau.



Josu Gomez (Iou)  
23 urte  
langilia

**N**ik bidaiatuko neuke, oiñ seguridade asko dagualako, polizia asko eta kontrol asko egitten diralako momentu honetan. Etiketarik bareko motxilak etara egitten dittue abiottik. Hau gertatu danetik ibili naiz abioian eta trankil, trankil.



Leire Alvarez  
9 urte  
ikaslia

**B**ai. Bildur pixkat emoten dosta baina. Abioian, bateronbat ikusiko baneu arrarua, nere aittari eta amari esango notsake, badaezpada.



Isolia Quintas  
76 urte  
erretiratua

**N**eri lenagotik be ez jatan asko gustatzen abioian ibiltzia. Pasau dana pasau arren pentsatzen dot antzera dala. Gure edadian, bestela be, ez gare hola ibiltzeko moduan.

Ugaitz Catalan  
Egoitz Unamuno

 **HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

**Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!**



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

# Angel Murgoitio atxilotu zeban poliziak



Urriaren 17an goizeko 02:00xak aldera atxilotu zeban espainiar poliziak, Anjel Murgoitio Soralezetarra, Rabal kaleko 12.zenbakiko bere etxebizitzan, ETako kide liberatu izatia egozten dotsen beste bi lagunekin batera. Operaziñua Guillermo Ruiz Polanco Audientzia Nazionalako epailiaren agindupian egin zan eta Soraluze, Azkoitia eta Ondarruan izan ziran atxiloketak. Auzokuen esanetan, atxiloketak gertatu aurretik, ikusi zeben polizia inguruan eta bi pertsona atxilotuta eruan ostian be, kontrolak izan ziran.

Poliziak, ETaren Aranba komandoko kidieri laguntzia emotia egozten dotsa Anjeli. Poliziaren esanetan, Anjelek aitortu egin zeban ETari laguntza emon zotsala baina bere kabuz eta beste inoren laguntzarik gabe jardun zebala esan ei zeban. Momentu honetan, Anjel Aranjuezko Madrid 2 kartzelan dago espetxeratuta, epaiketaren zai. Amnistiaren Aldeko Batzordiak jakinarazi zebenez, Anjelek poliziaren golpe eta tratu txarrak jasan zittuan atxiloketan bertan eta ostian. Harrixan, manifestazio eta konzentrazi ugari egin dira atxiloketa

gertatu zanetik. Haudixena, atxiloketiaren egunian bertan egin zana. Bertan 300 bat pertsona batu ziran eta herriko kaliak ziharkatu zittuzten "Anjelua askatu" esanaz.

Batasunak moziño bat aurkeztu zeban, urriaren 19xan, gai hau tratatzeko egin zan premiazko saiuan. Moziñuan, atxiloketia "Euskal Herriak bizi duen gatazkaren ondorio zuzentzat" jo, "gatazkaren konponbiderako, euskal gizartearen hitza onartzea eta errespetatzea funtsezkoa" dela eskatu eta "konponbiderako gakoak, Lizarra-Garaziko hitzarmenean jasotzen" direla aipatzen zeban, "neurri polizialak....., konponbidea izan barik, gatazka politikoaren konponbidera bideratutako behin betiko prozesu baterako oztupo" dirala be azpimarratzen zan, "atxiloketa zentrotan, torturen arriskua dagoela eta", Angelegatikoz kezka adieraztia, "atxiloketa inkomunikatuaren berehalako altxaketa" eskatzea eta senide eta lagunei elkartzatua adieraztia. Moziñua ez zan onartu, EAJ, PSE-EE, EA eta PPren aurkako botoz.

## Bi Soralezetar epaitegixetan

Deba eskualdeko 16 gazte, 2.000. urteko apirilian, Maltzagan Euskal Presuen eskubidien aldeko bide mozketan bat egitiagaittik epaituak izaten ari dira. Adinez nagusixak diran 10 gazterendako, epaiketaren lehenengo saiua urriaren 24 an izan zan Donostiako Epaitegi Penalian. Bertan, fiskalak bi urte eta zortzi hilabeterainoko zigorra eskatzen dau, koakzio, desorden publiko eta desobedientzia salaketapean. EH-ek tartean, Euskal Presoen alde burutzen diren ekintzei "atxikimentua" erakusteko, gazte honendako eskatzen dittuzten zigorren "gehiegikeria" salatze eta urriaren 20xan Eibarren egin zan manifestaziñuarekin "bat" egittek eskatu zeban baina Udal Batzarrak ez zeban onartu, EAJ eta PSE-EE (PSOE)ko zinegotzien kontrako botoz.

## Debarreneko "Eko-Astea" herrixan

Debarreneko herrixak Debegesarekin elkarlanian, ingurugirurekiko sentsibilizaziñua indartzeko asmuarekin "Debarreneko Eko-Astea" kanpaina jarri dabe martxan. Kanpainaren barruan Debarreneko herrixetan zihar erakusketa ibiltari bat eta bes-telako hamaika ekintza egin dira. Soraluzen, Debako Arte Eskoliak diseinatutako erakusketia izan zan Plaza Barri-xan egun oso batez (22xan) eta urriaren 23an ikastolako umiak zuhaitzak landatu zittuzten Ezozira bidian, bidez azpittik dagan zelai baten.



Argazkixan, neska mutikuak jardun zeben momentuan. ikusi littezke zuhaitzak sartzen

## Larraitz Lakuesta EHko zinegotzi berrixa

Urriaren 15ian egin zan ezohiko udal batzarrian hartu zeban Larraitz Lakuestak, Regina Maiztegi Izartu programaren barruan Udalarendako lanian hasi zalako laga zeban zinegotzi kargua. Larraitzen esanetan "Soraluzeren alde egitten saiatuko naiz, ahal doten onduen, baina zaila izango da Reginak bezain lan ona egittia".

## Autobusak Gilara

Amutxastegi lantegiko eta polikiroldegiko lanak zirala eta, autobusak herriko sarreretan hartu bihar izan dira, bi bat hilabetetan. Urriaren 20tik aurrera, autobusa Gila zubitik pasatzen da berriz ere. A ze lasaitua hartuko zeban batek baino gehixagok, negua datorrela jakinda.

 **etxebarri**®  
etxehun

Barren kargatzaile automatikoak  
Makina bereziak.

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

 **Ventanas  
Olarri**

\* Aroztegia, PVCa, Aluminioa  
\* Terraza estaldurak, Balkoiak  
\* Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10  
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila





# 200 Pertsona inguru SAN ROKERen igoeran



**Urtero moduan aurten be Pilarika** egunian, urriaren 12xan jaso zeben San Roke Santua ermittara. Aurten, eguraldi onari esker, jende asko bildu zen prozesiora, 200 pertsona inguru. Goizeko 7:30 etan herriko elizatik urten eta 8:15 alderako heldu ziran San Roke ermittara, aurretik gurutze haundi eta eder bat zoiala eta Santua bizkarrian zebela. Ermittara heldu ostian, Jokin Mitxelena herriko abadiak mezia emon zeban. Sermoian, berba gogorrak izan zittuan, Estatu Batuak irailaren 11ren ostian hartu daben jarrierarekiko. Meza amaittu zanian, salda eta txorixua izan ziran bertaratu ziran dandako. Ia urtetik urtera indarra hartzen juaten dan ohitura edar hau.

## Txolartekuk Plaentxiara bisitan

Urriaren 17xan Bergarako Txolarte elkarteko kidiak izan ziran Plaentxian. Txolarte, Deba Goienero adimen urritasuna dauken pertsonen bilgune da. Elkartiaren helburua, *"pertsone honeri aisialdi gune bat sortzia eta garapen pertsonala lantzen laguntzia da"* Aitziber Soraluze Plaentxiako ordezkariaren esanetan. Txolarte Atzegi elkartiaren barruan dago eta euren lana ezagutzera emoteko asmurekin, hilero Deba Goienero herri batera egingo dabe bisittia. Soraluzera, bertako hiru neska; Mirian Soria, Nerea Uzin eta Aitziber Soraluze hain zuzen, Txolarteko boluntarixoko diralako. Nerearen ustetan, *"dirurik ez baina satisfaziño pertsonal haundixa emoten dau boluntarixoko lan honek"*. Azkenik, elkartian boluntarixoko falta pixkat badaukela eta, *"batez be mutilena, ze danok neskak gara"*, jentia animatzen dabe elkartian parte hartzera (943 75 18 58 Aitziber).



**FER. S.A.**  
**Industriak**

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tifonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b  
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10  
20.590 SORALUZE

## Sebastiana Martinek 100 urte



**Sebastiana Martin amanak, 100 urte bete** zittuan jua dan urriaren 25ian. Hori zala eta, Soraluzeko Udalak omenaldi bat egin nahi izan zotsan.,Egunian bertan, bere etxera jua eta lore sorta edar bat emon zotsen. Ekitaldixan, Udaleko Gizarte Ongizateko Batzordeburua dan Soledad del Bosque eta Diputazioko ordezkari modura etorri zan Fernando

Etxebarriak parte hartu zeben. Etxekuak, senidiak eta auzokoren bat edo beste be, Txurrukeneko bere etxian zeren, bere eguna berarekin batera ospatu eta pasteltxo batzuk janaz kontu zaharren inguruan berba egiteko. Sebastiana Salamancan jaio zan Agallas herrixan 1.901. eta 1972xan etorri zan Soraluzera. Zorionak Sebastiana !

## Hildako bat eta zauritu bat barianteko istripuan

**Pertsona bat hil eta beste bat zauritu** zan, urriaren 10 ian herriko bariantian, Erlei baserrirako bidiaren gaineko zubixan, Donostiko matrikuladun Citroen Xara batek, Ford Mondeo batek eta Madrideko matrikuladun Citroen Xantia batek elkar jo ostian. Istripua gabeko 22:00ak aldera gertatu zan eta ambulanzia eta ertzainak bizkor heldu ziran arren, ezin izan zeben ezer egin Citroen Xsaran harrapatuta gelditu ziran bi gizonetako baten bizia salbatzeko.

## Soraluzetarrak Austrian

**Joan den hilean, Gipuzkoako Foru** Aldundiko Mendi Nekazaritzako sailak Austriara antolatutako bidaian izan ziran, David Elizburu erlezaina eta Nerea Isasti kultura saileko zinegotzia (Jabier Garmendia Nekazaritza zinegotziaren ordezkari modura). Bertan, Gipuzkoako beste elkarte eta erakunde batzuetako ordezkari eta teknikariek batera, Austriako nekazaritza munduko agintari eta baserritarren azalpenak entzun ahal izan zituzten. Subentziño, osasun eskaera, turismo, produkzio mota berrixen inguruan berba egin zeben, beste gauza askoren artian.

## Udalak Trafikoko Udal Ordenantza onartu zeban

Udal batzarrak irailian onartu zeban aho batez, Trafikoko Udal Ordenantza. Ordenantza honek, erabilera, trafiko, zirkulazio eta herri bidien segurtasunaren inguruko neurriak jasotzen ditu.

## Beti Prestekuak Elosun



**Urriaren azkenengo astebukaeran Beti Prest** taldean dabilten neska mutikoak Elosun konbentzietarako prestatuak dagoen etxean egon ziren. Beti prest talde parrokiara da eta guztionandik ezaguna da, talde honek gazteentzat hainbat ekitaldi antolatzen bait

ditu. Beraien helburua mutikoak ondo pasatzea da eta honetarako Sapatu arratsaldeetan 16:30-etatik 18:30-tara elkartzen dira mutikoekin. Beti Prest –ek laster 10 urte beteko ditu eta hau ospatzeko ekitaldi bereziak antolatuko ditu. Emango dizuegu horren berri.

*Arianne Unamuno, Eguzkiñe Aldazabal, Egoitz Unamuno, Enara Agirre.*

## SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

Arandela pulituen fabrika  
Standart Tipoa, Din eta Zeta  
Araua, eredu edo planoen  
araberako Estanpazio lanak.

 *Estanpaciones* **LAGA s.a.**

Industroaldea  
telf: 943752350/1985  
telefax: 943751702

42 postakutza  
20590 Sorluze



# Margarita Larrañaga

## “AURKI 98”

A zelako sasoi eta barriketarako gogua dakazen Margaritak 97 urtekin, burua argi eta umore bixiz, benetan maja topau dogu. Berakin atzera begiratu bat emon eta aspaldiko kontuak gogora ekarriz gustora baiño gustorago egon gara. Apal apal esan dosku, bera ez dala inportantia eta ia ze kontau bihar doskun berak. Tira tira, makiñatxo bat kontu interesgarri dakaz ba kontatzeko eta hona batzuk:

**-Margarita, zenbat urte dakazuz?**

Oin 97 eta aurki 98.

**-Txikitxako akordu bat ?**

Txikitan afariketan ibilten giñan, tartalosaka, losatik losara seleminetan, trapu zaharrek in eindako maramiak in (muñekiakin)... Akordatzen naiz esneduna etortzen zala kalera pare bat iri eta karruakin eta zain egoten giñala karro gaiñian juateko.

**-Gustoko bazkarixa ?**

Fideua eta edozer gauza, txuletia, sardiñak, legatza dana dao oso ona... edateko sardaua eta postrerako arroz esnia. Kafesnia sopekin be ederra da.

**-Zoriontsu izateko klabia ?**

Irratitik musikia entzutiak, horretxek lagundu dosta neri asko .

**-Ze alde ikusten dozu lehengo eta oingo gazterixian artian?**

Oin hobeto bizi dia diru gehixao be badake ta hobeto, baiña lehen be ederki ibilten giñan.

**-Zer ez ziñuke sekula egingo?**

Iñori kalterik.

**-Ez dozu galtzen sekula ?**

Loiolako mezia, 7etan egoten da eta zelako gauza politxak esaten dittuen!

**-Gustoko koloria ?**

Berdia, gorrixa, beltza.

**-Gustoko animalixia ?**

Txakurra, on eitten badotsazu berak be on eingo dotsu

**-Zaletasunak ?**

Teatrua, pelikulak ikustia, musikia, musikazalia naiz oso, danbolina gустatzen jata, lehen gустetan dantzan



Margarita Larrañaga

**"Txakurra, on eitten badotsazu berak be on eingo dotsu"**

eitten giñuan. Lehengo aldixetan kanpuan eitten ez giñan atrebitzen, baiña gero nok errendidu gu..!

**-Eguneko momenturikan onena ?**

Goizetan berandurarte lo eittia

### HABANERAN

Erresidentzira juanda egin dotsagu bisita, berritsu baina lotsati agertu zan Margarita. "Lagunik badakazue ?" laster hasi da zirika, gu barriz galde ta galde kontu zarreri zirrika. Mezak gustokuak dittu gustokuago musika. Denbora geldittu-eginda bera entzuten jarritta. Etxera bueltatu gara ikasgaixa ikasitta, "urte asko hartzen dira bizio gitxi eukitta".

**Etxebarri**

**-Manixa bat ?**

Hanka bat bestian gainian eukitzia, ez jata komeni, baiña ezin izaten dot aguantau.

**-Zelakua izan bihar da personia zure gustukoa izateko ?**

Naturala, harrua ez .

**-Soraluze ?**

Ez dao gure modokorik. Ni hemen bizi izan naiz beti eta politta da, mendi ederrak eta...

Gururu



**Maidier Lopez**  
**Podologoa**  
**65. kolejiatu zenbakia**  
 Arragueta kalea,  
 2 bis C behea  
**20600 EIBAR**  
 Tfnoa: 943 82 04 88



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
 jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
 E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
 Errekalde 21 20590 SORALUZE

# GUENETXE ETA AGARRE BASERRIKO ARTZAIK OMENDUKO DIRA AURTEN

Azaroaren 10ean, azaroko 2. larunbatean egingo da aurten ere Gaztañerre feria. Barazkiak, ganadua eta eskulangileak eta baserri inguruko produktuak izango dira ikusgai eta erosgai. Eguraldia lagun bada, joandako urteetan bezain arrakatsua izatea espero da. Aurten ere bi artzai omenduko dira.



**D**agoeneko badira Surte, Gaztañerre azoka antolatzen hasi zela. Lehenengotik izan zuen arrakasta handia azokak. Batetik, herriko baserri eta eskulangileen produktuak izaten direlako ikusgai eta bestetik, saltzaileek eurek postuak ikusgarriro apainduta jartzen dituztelako. Barazki mota ugari, frutak, ogia eta abar izaten dira postu gehinak betetzen dituzten produktuak, behiek astoek eta ponyek ere, jendearen ikusmina bereganatzen dute. Artisauek, euren abildadeak erakutsi eta salmentaren bat egin ahal izaten dute eta denak gustora. Aurten, gaztagilerik eza izan zen hasiera baten faltan somatu zena, nahiz eta azkenean, badirudien Agarrebeiztei eta Itturbeitta baserrikoak etorriko direla etxean egindako gazta saltzera. Beraz denetik izango da; 11 barazki eta fruta postu, ezti postu bat, 7 artisau postu, 2 gazta postu, 5 ganaduzale eta 2 hegazti postu. Barazki eta fruituen postuei dagokienean, aurten ere lehia bizi izango da, lehen saria lortzeko ahaleginean. Haritza (2.000.urteko txapelduna) eta Lezarri (1.999.urteko txapelduna) dira lehen saria lortzeko faborito

nagusiak. Baserriko produktuez gainera, trikitilari eta bertsolariak izango dira aurten ere. Larreategi taldeak eta Lizaso eta Agirrek, trikitiz eta bertsoz gozatuko dituzte bertaritzen diren danak. Azokaren antolakuntza, urtero bezala Debemen elkarteak darama eta norbaitek azokan izena ematea nahi izango balu 943 74 40 67 telefonora deitu eta Agurtzanerekin hitzegitea besterik ez luke egin beharko.

### Diru bilketa eguna

Kontuak kontu, Gaztañerre Azoka, diru bilketarako egun aproposa dela dirudi. Aurten ere, Istitutuko ikasleek eta Pil Pilean Kultura Elkarteak, pastak jarriko dituzte

**Haritza eta Lezarri  
baserriak dira 1.saria  
lortzeko faborito nagusiak  
aurtengo azokan ere.**

salgai, bertso eskolako neska mutikoek gaztañak erreko dituzte danbolinean eta AEKkoek talo postua jarriko dute Plaza Zaharrean. Egun aproposa beraz, kulturari eta gaztetxoek bultzadaxo eman eta tripa zorriak goxatu, biak batera egiteko.

### Herri Babajana eta dantzaldia frontoian

Azken urteotan, Gaztañerre azoka egunean kuadrilen arteko babajanak egitea ohitura bihurtzen ari dela ikusita, Euskalgintzak Herri Babajan bat antolatu du egun horretarako, festari bultzada on bat eman eta jendeari herrian geratzeko tentazioa sortzeko. Babajana 14:30etan hasiko da eta honen ostean Txan magoak, magia eta grazia puntu bikaina jarriko dio arratsaldeari ondoren etorriko den Muganix talde Oiartzuarraren erritmo biziak dantzatzera, jendea animatuta atera dadin. Bestalde, beste herri batzuetan izaten den bezala, Soraluzen ere egun horretan baserri giro berezia izan dadin, Udaleko Nekazaritza Batzordeak eta Euskalgintzak, jende baserriarrez jantzita



**Limpiezas**  
**Trejo, S.L.**

**Limpiezas  
industiales**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

**ITUR iturgintza**

**Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea  
Tlfonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96



ateratzeko deia egin nahi die.

## Babajana eta dantzaldia egingo da frontoian. Jaia borobiltzeko baserritarrez jazteko deia egin dute Udalak eta Euskalgintzak

### Azokako bazkaria Allegroan

Herrian sarri gertatzen zaigun moduan, bada oraingoan ere kontatu beharreko bitxikeri bat. Aurten Ezozi jatetxean egitea tokatzen zen bazkaria, Allegro soziedadean egin beharko da, Ezozikoak berriak direnez eta inork abisatu ez zenez, jatetxea bete bete eginda daukatelako egun horretan. Seguru gaude baina, Allegroan ere, bazkari bikaina prestatuko dietela azokako baserritarrei eta trikiti eta bertso artean, bazkaloste eder asko izango dutela.

### Bi artzairi omenaldia

Joan zen urtean Izarre baserriko Pedro eta Juli artzainei egin bazitzaizen omenaldia, aurten, Guenetxe baserriko Paula Aranori eta



Paula, bere alaba Karmen eta Pepitarekin Guenetxeko sukaldeko sutondoan.

Agarre baserriko Juan Telleriari egingo zaie. Eurak dira artzai izandako pertsonarik zaharrenak eta horregaitik, artzantzari eusten egindako lana eskertzearren egingo zaie

## Paula eta Juanek, Tere Guenetxeak egindako irudi bana jasoko dute.

omenaldia.

Guenetxeko Paulak 88 urte ditu eta jatorriz Eibarko Aginaga auzoko baserri batean jaioakoa da. 30 urte inguru dira Guenetxen ardiak kendu zituztela baina orduarte makinatxobat gazta egin eta lana kardatutakoa da Paula. Zalea da Paula bisitatzen dutenen jatorria asmatzeko ahaleginean, "zu Etxeberrikua, ta zu kalekua zara ezta?" galdetu zigun goxo goxo sutondoaren ondoan epel epel jarrita zegoela eta asmatu zuen.

Juanek berriz, 92 urte dauzka eta Agarre baserrian bizi da, sei urterekin Urrusti baserritik jeitsi zirenetik.


Bizi bizi eta dotore asko atera zitzaigun Juan atarira. Gerritik sufritu arren, osasunez ongi eta burutik hobeto dagoela ikusi genuen. Paulari eta Juani herriko Tere Guenetxea artisauak egindako eskultura bana emango zaie, lore sorta batekin batera.

*Egoitz Unamuno*



Klaudia eta Juan Agarre baserriaren atarian.

## Bolia taberna



Etxaburueta  
kalian

Soraluze

Telefona:  
943 74 11 04

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfona: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# Sakabanaketaren aurkako konzentrazioa Soraluzen

Asier eta Iñakiren heriotzen ostean "Soraluzeko Udalak sakabanaketaren aurkako mozioa onartzean hasitako ibilbideari jarraipena" eman nahian, Senideak-Gureak elkarteak "Euskal Herri guztiko hautetsiak" deitu ditu, "hilaren 10ean eguerdiko 12etan Euskal Presoen eskubideen alde eta sakabanaketaren aurka" Soraluzen egingo den konzentrazioan parte hartu dezaten.

**Joan den irailaren 8an Lurdes Txurruka preso** Plaentxiarra bisitatzeraz zioazela, bizia galdu zuten errepidean Asier Heriz eta Iñaki Saez-ek. Gertakizun honen aurrean, Soraluzeko Udalak, EAJ, EA eta Batasunaren aldeko botoekin, Senideak-Gureak elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zuen. Mozio horretan, "inoiz baino gogorrago, sufrimentu eta heriotzak eragiten dituen sakabanaketa metodo ankerrarekin" amaitzeko eskaera egiten zitzaien Espainiar eta Frantziar estatuei. Hain zuzen ere, aipatutako gertakizunen arira eta "Euskal Presoen eskubideen aldeko prozesuan pauso berriak" eta "eraginkorragoak" eman nahian, Senideak-Gureak elkarteak eta Soraluzeko Batasuna alderdiko bi zinegotzik, dei egin zieten "Euskal Herriko hautetsi guztiei, azaroaren 10ean Soraluzen egingo den konzentrazioa etortzeko", urriaren 22an Udaletxeko pleno aretoan eskeini zuten prentsaurrekoan. Bertan, Asier eta Iñakiren senideak; Mari Fran (Asierren ama), Lurdes Mendizabal (Asierren neskalaguna), Irantzu Benito (Iñakiren emaztea), Aitor Saez (Iñakiren anaia) eta Senideak-Gureak elkarteak ordezkari den Juan Antonio Madariaga eta Soraluzeko Senideakeko kide den Arantxa Txurrukak ere parte hartu zuten, Larraitz Lakuesta eta Ezosi Larrañaga Soraluzeko bi zinegotziak batera. Juan Antonio Madariagak adierazi zuenez, presoen eskubideak urratzen diren bakoitzean giza eskubideak urratzen dira. Gogoeta hau bideratu zion klase politikoari, "denek



## Asier eta Iñakiren senideak, zinegotzi eta Senideak elkartearekin batera Udalean

diotelako giza eskubideen defentsarekin bat datozela". Madariagak, kartzelatan jarraitzen duten baina legearen arabera kalean egon beharko luketen 100 preso daudela azpimarratu zuen, gaineratuz "klase politikoak ezin du pelota gure teilatura bota", egoera hau salatzea "bere lanen barruan" sartzen dela esanez. Egoeraren larritasunaz eta neurriak hartu behar diren "urgentziaz" ere ohartu zuen.

Ezosi Larrañaga zinegotziaren esanetan, "sakabanaketak, Euskal Presoen eta beraien familiarterkoen eskubideak urratzen ditu" eta

horrek "sufrimentua areagotzea eta heriotzak" besterik ez ditu ekartzen. Gainera, "hainbat aldiz eskatu dute, Euskal Herri osoko intutuzio ezberdinek sakabanaketarekin amaitu egin behar dela" baina "Espainiar eta Frantziar estatuek entzungor" egiten jarraitzen dutela azpimarratu zuen. Azkenik, Euskal Herriko hautetsiei, Soraluzeko kozentrazioa deia luzatu zien, "mobilizazio mailan aurrerapausu bat eman eta behingoz dispersioarekin amaitzeko esijentzia" helarazteko Frantziar eta Espainiar estaei.

## Guardia Zibilak Pili Agirre atxilotu zeban

Urriaren 13an Pedro Jose Etxeberria bisitatatzera juan ziran, Pili Agirre neska laguna eta bere gurasuak. Gurasuak 2 urte, ixa 3 urtetan ikusi barik zeuken semia eta hargatik, "oso bidai berezixa zan errendako". Semiakin "Vis a vis" bat eduki eta gero, lo zeudela "goizeko

lauretan Guardia Zibila hoteleko gelan indarrez sartu eta belauneko jarri arazi eta pistolak buruan jarri eta gero, Pedro Joseren neska laguna" atxilotuta eruan zeben. Bere aurka bilatze eta atxilotze agindua zeguala "aitzakitzat" hartuta egin zeben atxiloteta hau, azkenian,

gaba osua atxilotuta emon eta gero, aske laga zeben, Piliren abokatuak bidalitta zeukan, baina Guardia Zibilak jaso bare zeukazen paperen berri izan zebenian. "Oso momentu gogorak eta tristiak" pasau zittuztela jakinarazi zoskun senitarteko batek.

## Lonbide taberna

**Pintxoak  
Ardoak, kafeak eta likoreak**



Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07

## Peluquería Marisa



**Rabal 19 - 1  
Tfnoa 943 75 22 43  
20590 SORALUZE**

**Pelota****Hiru Soraluzetar DV - Tele 5 txapelketan**

**E**l Diario Vasco - Tele 5 txapelketa afizionatu eta gazte mailan jokatzen den binakako txapelketarik garrantzitsuen da. Maila bakoitzeko pilotari onenak gonbidatzen dituzte eta aurten hiru Soraluzetar ari dira parte hartzen txapelketan: Iñaki Jauregi gazte mailan eta Jon Arrieta eta Aritz Laskurain gazte mailan.

Jon Arrietak urriaren 12an eman zion hasera txapelketari eta Imanol Parro Artziniegatarra lagun zuela lehen partidua erraz irabazi zuen 22 eta 12ko emaitzaz Errea eta Garde Iruñatarren aurka.

Urriaren 19an Iñakik eta Jonek final laurdenetako partidua jokatu zituzten Galdakaon. Iñakik eta bere bikote den Landak 22 eta 5eko emaitzaz kanporatu zituzten Enuntziaga eta Isasi bizkaitarrak. Iñakik atzeko koadroetan erraz dominatu zuen Isasi eta Landak ongi aprobeztatu zuen Iñakiren nagusitasuna bere errematatzaile sena aurreko koadroetan erakutsiz. Bikote sendoa osatzen dutela erakutsi zuten. Final laurdenetako partidua azaroaren 18an jokatuko dute Zegamako pilotalekuan txapelketa irabazteko faborito diren Mendizabal - Oteiza bi-



**Laskurain eta Ubera partiduaren**

kotearen aurka, ikusteko **Aritz Laskurain taldeburu izendatu dute eta Ubera Elgetarrarekin batera, azaroaren 23an jokatuko du bere lehen partidua, Elgetako pilotalekuan**

moduko partidua izango da.

Jonek eta bere bikoteak ezin izan zuten eguna borobildu Amari eta Atutxa bizkaitarren aurka 22 eta 18ko emaitza estuaz galdu bait zuten. Partidua gogorra izan zen eta ordu betetik gora iraun zuen. Par-

tiduaren lehen zatian Jonek ez zuen bere jokorik onena erakutsi baina partidua erditik aurrera konfiantza bereganatu zuen eta oso ongi egin zuen pilotan atzean nagusi izan zelarik. Aurrean ordea Parrok etzuen Amari kanporatzerik lortu, tantua sartu ezinik ibili zen eta 17na berdindurik egon ondoren 22 eta 18 galdu zuten. Aritz Laskurain taldeburu izendatu dute eta Ubera Elgetarrarekin batera azaroaren 23an jokatuko du bere lehen partidua (final laurdenak) Elgetako pilotalekuan. Aurkariak Arrieta kanporatu duten Amari eta Atutxa izango dira.

**Erlei Txurruka Azpitxapeldun Oiñatin****Erlei Txurruka Oiñatikoko**

**txapelketan** Gipuzkoa ordezkatzu finalera iritsi zen Errarte lagun zuela. Finalerdietan Angulo eta Resano arabarrak 22 eta 16ko emaitzaz menperatu zituzten. Baina finalean ez zuten sorte berdina izan eta ezin izan zuten txapela irabazi Arraztoa - Arraztoa Baztandarren aurka 22 eta 12 galdu bait zuten.

**Atletismoa****Juan Alberdi 3. Lasarte Orian**

**Juan Alberdi atleta Soraluzetarrak** marka bikaina lortu zeban urriaren 28xan Lasarte Orian jokatuko VI. Herri Krosian. 1.150 Lasterkariren artetik, Juanek 3. Postuan heltzia lortu zeban, 10,8 kilometroko ibilbidia, 35:38 minututan eginaz.

Sailkapena hola gelditu zan:

Asier Urdanpilleta.....34:30  
Iñaki Bodegas.....34:45  
Juan Alberdi.....35:38

Aurtengo denboraldiko lehen lasterketa izan da Lasartekua eta oso pozik dago lortu dabean emaitziakin. Animo Juan !

**Pinturas ION MURGIZU**

Empapelatuak  
Margoketa orokorrean  
eta Estukoak

Telef. 943 75 13 24  
Ezoziko etorbidea 24 2 beheko  
20590 SORALUZE

**Lakuesta****Optika**

**Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- beheko

20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59



# Aritz Sudupe

“Aurten jubilatzekeo asmua daukat”

**Alfatik Arrater**

Aritz gazteua zala hasi zan eskubaloian jokatzan, 13 urte zittuala. “Amak eta tiok jokatzan zeben eta ni be animau egin nintzan probatzera eta gus-tau egin jatan”. Noski, herrixan eskubaloit talderik ez zeguanetz, Eibarrera jua bihar izan zeban jokatzera. Lehenengo “Alfako taldian sartu nintzan eta eskolen arteko txapelketak jokatzan giñuzen. 14 Urtekin Arrate taldera pasau nintzan. Arratek Euskal Herritik kanpora urte-zeko aukeria emon dosta, Zaragoza, Santander, Madrid, Canarias...” ezagutu dittu. Gaur egun 21 urte dauzka Aritzek eta Lehenengo Maila Nazionalian (profesionala baino maila bat behe-rago) jokatzan dau Arrate taldian bigarren taldian. Lana eta beste arrazoi batzuk dirala eta, Aritzek aurten jokatzari lagatzeko asmua dauka eta kirolari lotuta jarraituko daben arren “jokatzetik jubilau egingo naiz”.

**Eskubaloiko entrenatzaile**

Aritzek herriko 30 bat neska mutiko entrenatzen dittu eskubaloian. “Eibarko Arrate taldia, Markina eta Plaentxian daukaz kanpoko entrenamentu taldia eta eurak jarri nabe en-

trenatzen”. Eskubaloia hezkuntzako “kirol aniztasuna” eskeintzaren eta Kirola Euskaraz programaren barruan txertatuta dago. Entrenatzaile izatia zelakua dan galdetuta, “batzuetan nekatu egitten dau baina satisfaziño haundixak be emoten dittu. Ikasliak jokatzan ikusten dittuzunian eta euren lagun egitten zaranian”. Eskubaloian, beste kirol askotan ez bezala, behe mailetan behinpein, neskek eta mutilak batera jokatzan dabe. “Kirol honen beste ezagarrixetako bat da; oso kirol konpenetraua dala. Elkartasun haundixa bihar da jokalarixen artian eta ikusmen ona be bai, batez be aldietara. Oso kirol politta da”.

**Instalazio eza Soraluzen**

Aritzun ustetan, gaurko neska mutikuak aukera gehixao dauke kirol berrixak ezagutzeko. “Ni hasi nintzanian ez zeuan futbola eta pelotia beste kirolik egitteko aukerarik herrixan” diño Aritzek, “gaur egun multideportes eta bestelako eskeintzak badare eta horrek, beste kirol batzuk ezagutzeko aukeria emoten dau behintzat”. Instalaziño aldetik, “herrixan oso instalaziño eskasak dare eta hola



**Aritz Sudupe**

ezin da kirol baten aurrera egin” diño Aritzek. “Aurrera egittia nahi badabe, kanpora jua bihar dabe eta horrek ordu asko kentzen dittu”. Bere ustetan batez be arrazoi horregaittik lagatzan dabe neska mutil askok eskubaloia “eta penagarrixa da”.

Azkenik, Aritzek mezu hau zabaltzeko eskatu zigun. “Batenbatek nahiko baleu nerekin batera entrenatzaile hastia edo laguntzia, esan deixela eta emoten dosten laguntzia egingo dogu erdibana”. Ia batenbat animatzen dan, Aritzegana urreratzen danak lagun eta pertsona bikain bat ezagutuko dau, diru bono mordo batez irabazti az gain.

## Cristina Hernandez

### TXAPELKETA INTERNAZIONALEAN HIRUGARREN.

Soraluzetar judoka gazteak emaitza onak lortu diti orainarte ospatutako txapelketetan, lehenik Euskadiko txapelketan parte hartu zuen eta bertan lorturiko bigarren postuari esker Españako txapelketarako txartela lortu zuen. Txapelketa hau bertan behera gelditu zen eta bere orde Santanderko txapelketa internazionala ospatu zen,

txapelketa honetan Cristinak berriz ere txapelduen podioan sartzea lortu zuen, oraingoan hirugarren gelditu zelarik. Cristinari txapelketen balantze bat egiteko eskatu genionean ez zegoela oso gustora esan zigun eta erantzun honek arriturik utzi gintuen, guretzat izugarriko meritua duten postuak lortu bait diti. Berak

dionez azken aldi hontan ez du asko entrenatu eta ez du txapelketetan bere mailarik onena erakusteko behar den forma lortu. Entrenamenduak serio hartuz lehen postua lortzeko kapaza dela ikusi du eta datorren Euskadiko txapelketarako buru belarri entrenatuko dela zihurtatu digu.

## Futbola

### Emaitza eskasak

Orain arteko emaitzei begiratzuz badi-rudi aurtengo denboraldi haseran poztasunak emango dizkigun talde bakarra kadeteena izango dela. Erregionalak ez dio ongi ekin denboraldiari eta jokoan zeuden 15 puntutatik 4 bakarrik lortu ondoren sailkapeneko atzeko postuetan aurkitzen da. Denboraldi hasera kaxkar honen eraginez jende askoren ilusioak maldan behera joan dira, baina denboraldia amaitzeko ihardunaldi asko falta denez espero dugu taldeak egoera honi buelta emoteko ahalmena izango duela. Jubenilei dagokienez emaitz antzekoak lortu ditzute, aurten Prietok aldaketa sakonak izan diti taldean eta oraindik ez du joan den urteko maila lortu, agian aurten ez du lortuko joan den urtekoa berdintzea baina ziur gaude taldeak konfiantza lortzen duenean emaitza onak lortuko dituela eta ez duela izango arazorik mailari eusteko.

Esan bezala kadeteak izan dira poztasunak ekarri dituen talde bakarra. Denboraldi hasera nahiko ona izan dute eta kontutan izanik kategorian berriak diren hainbat jokalarit dituela denboraldiari begira poztasun gehiago izango ditugula ziur gaude.

ANIMO SORA DENBORALDIA HASI BESTERIK EZ DA EGIN!!!

### EMAITZAK

ERREGIONALA

- Aurrera Ondarroa 6 SORALUZE 2
- SORALUZE 3 Zestoa 2
- Intxurre 2 SORALUZE 2
- SORALUZE 3 Segura 5


JUBENILAK

- SORALUZE 1 Zestoa 4
- Luberrri 3 SORALUZE 2
- SORALUZE 1 Aurrera Ondarroa 3
- Bergara 3 SORALUZE 3

KADETEAK

- SORALUZE 4 Eibartarrak 0
- SORALUZE 2 Aretxabaleta 2
- Urki 4 SORALUZE 2
- SORALUZE 1 Aurrera Ondarroa 1

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Soraluze



**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

# Herriko 40 Taldek sinatu dabe BAI EUSKARARI akordia

Urriaren 17xan egin zan BAI AUSKARARI akordiuaren sinatze ekitaldixa. Bertan, 32 taldetako ordezkariak azaldu ziran, Bai Euskarari plen estrategikoaren barruan parte hartzeko prest darella sinatu zeben. Hemendik aurrera, taldeak sektoreka banatu eta sektore bakoitzean euskarak duen egoeraren azterketa bat egingo dabe teknikariak (Loiola Madera eta Unai Larreategik). Horretarako akordia sinatu daben taldiekin bilerak egingo dituzte. Egoera zelakua dan jakin ostian, aurrera begira euskararen presentzia haunditu edo mantentzeko bideak zeintzuk izan littezen erabakiko dabe. Azkenik, taldiak eurek egoki ikusten dituzten konpromisuak hartuko dituzte eta jarraipen bat egingo jakue, konpromiso horrek betetzen dirala zihurtatzeko. Dagoeneko hasi dan prozesu hau, bere osotasunian maiztz ingururako amaïtuta izatia espero da.



Bai Euskarari akordia sinatu daben gizarte eragilien ordezkariak.

## Honek dira akordixua sinatu daben taldiak, sektoreka banatuta:

### FORMAZIOA ETA HEZKUNTZA:

TERRIFIC INGELES AKADEMIA, PLAENTXI HERRI IKASTETXEA, SORALUZE DBH INSTITUTUA, ATXOLIN GURASOEN ELKARTEA.

### ZERBITZUAK:

ALONSO HORTZ KLINIKA, SORADENT, EL CORREO, LAB, GAZTELUPEKO HOTSAK, ELA, MAPRE ASEGURUAK, KONTULAN GESTORIA, EUSKADIKO KUTXA, TXEMA PEÑALBA.

### KIROLA:

PELOTA TALDIA, TXIRRINDULARI ELKARTEA, JUDO CLUB UKALDI, SORALUZE FUTBOL TALDEA, IGERIKETA ESKOLA, ATXA MEMORIALA, PLAENTXI MOTO CLUB.

### KULTURA, MUNDU ASOZIATIBOA ETA

### GIZARTE MUGIMENDUAK:

AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEAK, KONTRARGI ARGAZKI KOLEKTIBOA, SORALUZETAKO GAZTETXEA, EZOZIKO AMA ABESBATZA, MENDIAGAINAK IKUTU BEZ,

SEGI, EUSKAL JAI BATZORDEA, URRATS DANTZA TALDEA, LABE GAIN ELKARTEA, SAN INAZIO ELKARTEA, ARRIOGAIN ELKARTEA, MAHASTIA ELKARTEA, SAN ANDRES ELKARTEA, ODOL EMAILLEN ELKARTEA, PIL PILEAN KULTURA ELKARTEA, AEK, ETA EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ.

## Unamuno Txapeldun Bertso Paper Lehiaketan

Juan zan hilaren 26xan egin zan bertso afarixan banatu ziran aurtengo bertso paper lehiaketako sarixak. Helduen mailan, Egoitz Unamunok idatzitako "Afganistar baten bihotzetik" bertso sortiari eruan zeban lehengo sarixa. Bertan afganistar batek, bertako egoeraren inguruan dauzkan sentipenak azaltzen ditu, telebistan erakusten ez duten ikuspuntu batetik. 2. Aitor Albistur Errenderiarraren "Kursk Urpekontzitik Maitasunez" sorta gelditu zan.

Gaztien mailan saritutakuak, hirurak izan ziran Soralezetarrak (23. orrian dare).

Bestalde omenaldi bat be izan zan tartian. 17 Urtetan AEKn eta

azken urtietan PIL PILEANen be, "euskerian alde egin daben lan izugarria eta gaziari emon doskun laguntza paregabia" eskeretzeko, Euskalgintzak Maite Etxebarriari egin zotsana.

Bertsuari dagokixueze, Peñak eta Lujanbiok bikain garatu zittuzten Prietok jarritako gai xelebriak eta giro berezixa bizi izan zeben afaltzera urreratu ziran 50 pertsona inguruk. Saio osotik, egoeriak hala aginduta, Egoitzek Maite Etxebarriari kantatutako omenezko bertso hau izan zan hunkigarri-xenetakua:



*Ta zuri Maite  
zer esangotsut,  
zuk gu beste maite  
zaittugula guk.  
AEKan hemezortzi  
urtetan  
Pil Pileanen sortze  
lanetan.  
Badakigu han  
zenbat lan egin  
dittuzun duan,  
hau gutxinez  
merezi zenduan.*

*Doinua: Juana Bixenta..*

Maite Etxebarria Euskalgintzaren oroigarriarekin



# Roman Garmendia

**“GURE JAKINTZAREN MUĶAK”  
Roman Garmendiaren lehen liburua**

Azkenengo 8 urteetan Donostian bizi den Plaentxiatar honen eritziak sarri irakurri ahal izan ditugu euskal komunikabideetan. Orain, ‘Dakit’ argitaldaria babespian bere lehen liburua plazaratu du, bertan bere

pentsemendua bilduz eta azalduz Medikuntza ikasketak egiten ari zenean hasi zen Roman irakurtzen eta idazten. Bere pentsemendua, ordea, filosofia ikasten hasi zenean osatu zuen. Izan ere, filosofia, Romanentzat oso garrantzitsua da. “Aristotelesek esaten zuen moduan, filosofia zientzia maximoa da, eta zientzia maximoa den heinean, jakintza unibertsalaz arduratzen da. Ni saiatu naiz erakusten, mundu material honetaz dihardugunean, jakintza unibertsal hori lortzea ezinezkoa dela, ez garela sekula iritsiko jakintza horretara”

Eszeptizismoa ardatz, eta eszeptiko

**“Urritasunean sortzen dira klase gizarteak eta gerra antolatua”**

klasikoek ez bezala, era positibo batean antolatzen du bere teoria. “Edozein zientzian aurrerapenak egin daitezke, eta ni zientzia politikoan zentratu naiz batez ere.”

Marxen teoria bat abiapuntu hartuta, Romanek bere teoria mamitu du. “Marxek faktore nagusi bezala ekonomia jartzen du historia ulertzeko. Orain arte, humanitatearen historia beti izan da eko-

**“Humanitatearen historia beti izan da ekonomiaren gora beheren jostailu”**

nomiaren gora-beheren jostailu. Horregatik ikasi behar dugu ekonomia ondo gobernatzen”


Romanen iritziz, gerra ere ekonomiak eraginda sartu zen kultura klasikoan. “Oparotasunean, joera birbanatzailea dago. Urritasunean, aldiz, joera metatzailea, egoista. Urritasunezko krisialdi hauek dira hain zuzen ere kultura klasikoaren hazia. Urritasunean, Darwinen dioen bezala, existentziaren aldeko borroka areagotzen da eta hor sortzen dira klase gizarteak eta gerra antolatua. Hori gaintzeko, joera birbanatzailea lortu behar da, eta hori ekonomian oparotasun kondizioak sortuz egin daiteke bakarrik.”

Hau da labor labor Romanek liburuaz azaldu diguna. Teoria zentzuzkoa, orijinala eta interesgarria benetan. Interesatuendako, liburua Bilintxen (Bergaran) dago erosgai. Zorionak Roman eta bigarren libururarte.

Jon Basauri

## Eta literaturaz?

Hil honetan zozketan?



**HARRY POTTER ETA  
SEKRETUEN  
GANBERA**

**Egilea:  
J. K. Rowling  
Bilduma:  
Harry Potter 2  
Orriak: 288  
Salneurria:  
1.990 pta  
Data:  
2001eko urria**

*Harry Potter*

Harry Potterren itzalak literatur esparrua gaintu eta fenomeno sozial izatera heldu da munduan zehar, Ingalaterran eta Estatu Batuetan bereziki, baina horren entzutea, Errusiatik barrena, Txinaraino ere iristen da.

Harry Potterrek ahalmen miragarria baititu. Horregatik, liburua zabaldu ahala bere magia liluratzeko gaitu, eta liburuan sartuz goazen neurrian, are eta gehiago sorginduz goaz.

*Harry Potter eta sekretuen ganbera*

Harry Potter azti ausarta, Hogwartseko Azti eta Sorgin Eskolan lehenengo ikasturtea bukatu ondoren, bere osaba-izeba gogai-karrien etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain. Larri dago Harry gaixoa...

Eta galdera da?

**Zein da irakurri duzun haur literaturazko azken liburua?**

BALDIN BADA KIZU DEITU  
943 75 13 04 TELEFONORA.

Aurreko aleko irabazleak: Leire Gallastegi eta Pilar Uria  
**Animo!**

**HARRY POTTER ETA SEKRETUEN GANBERA  
elaberriaren  
bi ale daukazuz zure zai!**

**PIL PILEAN ETA ELKARLANEAN  
BAT EGINDA,  
EUSKAL LITERATURAREN ALDE**

**ELKOARTI  
VIDEOCLUB  
SORALUZE**

**Videomatic**  
Gabolatz, 3-behea  
Telefona: 943 75 24 87

**JOSETXO** *Ardangela*

PINTXO ETA OTARTEKOETAN  
ESPEZIALITATEA.

Atxuri, 9      SORALUZE      Tlf: 943751571





6 airbag.

**Zenbaki bat baino gehiago, konfidantza kontu**



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin ? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbags (aurreko inteligente 2 , alboko 2 eta kortina moduko sabaiko 2, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak: EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa, norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

Peugeot Gama 307: 75 CV tik 138 CVrako gasolina ( 1.981.000 pezetatik. / 11.906,05 e). 70 CV dun HDI tik 110CVdun HDIrrarteko Diesela ( 2.298.000 pezetatik. / 13.811,26 e).

**PEUGEOT 307-a. Ez da zenbaki bat bakarrik.**

**ETORMOBIL**

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

**307**   
**PEUGEOT**

Udal kontu

# UDAL BATZORDEEN BERRI

## 2001eko irailaren 24an egindako ohiko saioa

Erabaki hauek hartu ziren aho batez:

**1. Etxaburueta kaleko 5-behean dagoen Jubilatutako Etxera** gas naturala eramateko, "Txindoki"ren aurrekontua onartzea, 97.455 pezetako zenbatekoz, BEZa barne.  
**2. Haurren danbodarradaren antolaketa** burututako lanegatik, ondoko diru kopuruak ordaintzea hurrengo hauei:

-Enara Gallastegi eta Ione Iñarrari,  
17.125 pezeta

-Ane Larrategi eta Eguzkiñe Aldazabali  
13.700 pezeta.

## 2001eko urriaren 1ean egindako ohiko saioa

Hauek izan ziren hartutako erabakiak.

**1. Juan Ramon del Barrio Molinero Jn.k.**, "Keixeta" Guraso elkartearen izenean eta ordeztatuak instantzia, urriaren 17an, arratsaldeko 7etatik aurrera, Baltegieta kaleko erabilera anitzeko aretoa, aipatu Elkartearen urteko batzar orokorra egiteko baimena eskatuz; eskatutakoa ontzat ematea erabakitzen delarik.

**2. Hezkuntza Batzarre**

**informatzailearen proposamenez**, 100.000 pezetako dirulaguntza ematea "Keixeta" ikasleen Guraso Elkarteari 2001. urterako.

**3. Hirigintza Batzarre informatzailearen proposamenez**, udalerrin honetan zuhaitzak landatzeko, "Agenda 21 local"en aurrekontua onartzea, 140.585 pezetako zenbatekoz.

**4. Sagar-Errekako 27. Zenbaki inguruan hirigintza lanak egiteko**, "Construcciones Murias S.A."ren aurrekontua onartzea,

4.030.000 pezetako zenbatekoz, gehi BEZa.

**5. Irailaren 25eko INEM-en idazkia**, INEM eta Toki korporazioen arteko 2001eko lankidetzaren hitzarmenaren baitan burututako diren hiri tresna eta bide eta parke publikoen konpoketa eta zaintze lanetarako, 2.343.152 pezetako dirulaguntza eman dela jakinaraziz.

## 2001eko urriaren 1ean egindako ohiko saioa

Hauek izan ziren hartutako erabakiak:

**1. Kirol Batzarre Informatzailearen proposamenez**, 281.320 pezetako ordaintzea Alejandro Rodriguez Pozas Jn.ri "XX. Atxa Memoriala" izeneko atletismo frogaren antolatzeko eta aldi berean, eskatutako materiala uztea; horretarako Aparejadorearekin eta Udaltzainburuarekin harremanetan jarri beharko duelarik astebeteko aurretik.

**2. Itxaropena Jubilatuen Etxerako botilategia** erosteko, "Urkotronik"en aurrekontua onartzea, 151.000 pezeta

zenbatekoz, gehi BEZa

**3. Euskera Zerbitzuaren proposamenez**: -Egoitz Unamuno Loidi Jn.ri 3.570 pezetako ordaintzea Udaltzainburuaren ikastaroetara joateko eragindako gastuak, zati batean, ordain ditzan.

-Soraluzeko E.H.E.ri 15.350 pezetako ordaintzea Hizkuntza gutxituen egunaren inguruko ekintzek eragindako gastuei aurre egin dezaien.

**4. Enplegu eta Pertsonal Batzarre Informatzailearen proposamenez**, Ione Ariznabarreta Atxa And. amatasun-bajaz

dagoen bitartean ordezkatzeko, pertsona bat kontratatzea ludotekari lanak burutu ditzan. Era berean, hurrengo baldintzak betetzen dituzten hauek zerranda Udaltzainburuaren bidala eskatzen zaio INEMi:

-Soraluzen bizi izatea.  
-EGA edo titulo baliokidea.  
-Haurtzaintza, pedagogia, irakaskuntza eta antzeko jarduen gaineko ezagutza egiaztatzea.

Edu Pombar

# Etxabe harategia

**Euskal txahalkia - Bildotsa**

Merkatu plaza, 6-7 postuak  
Tfnua: 943752375



**IÑAKI  
IÑARRA**

**HARATEGI ETA  
URDATEGIA**

Kalebarren 29  
Tfnua 943 75 12 49  
Soraluze

## Kontu Zaharrak

# “SAKE HARRIXA”

Elizatariaren aldamenean, eta frontoiko lauan zegoen zinkezko estalkia zuen txizatoki batetik gertu egon zen lurrazalean josia “sake harrixa” izena zeukan harritzar hau. Kanpo erdian harrizko marra estu bat zegoen, jokogunea erdibitzen zuena. “Arraixxa zurixa” esaten zitzaion. Zer esanahi zuen honek? Inor gutxi du gogoan antzinan “errebotea” izeneko pilota jokia egiten zela bertan. Kirol komentariatarik ere izan zeb saso hartan, kirol hau pilota jokoen erregetzat zuena. Espezialitate honetan azken norgehiagoka orain 50 urte baino gehiago jokatu zen. Ez zen nolana hikoia izan gainera. Nazioarte mailako partidua izan zen, Hasparrenge taldea Billabonako taldearen kontra aritu baitzen. Lehenengok irabazi eta saria Frantzia aldera eramán zuten. Gaur egun, Zubietan eta Donostia inguruko herri txiki



**Ikastolak eta oraintsu egitten hasi diren lanek asko aldatu dute frontoi ingurua** batzuetan jarraitzen da joko honetan egiten. Baita iparraldean ere. Lau honen barrenean eta erdi hondatuta, eskuz pilotan egiteko frontoi munizipala dago, geroago futboleán egiteko erabiliko zena.

Zer gertatu ote zen mutikotan “sake harrixa” esaten genion harritzarrekin? Gaur egun, merezimendu osoz, museoren batean behar luke egon.

*Etxazpi (Erredakzioan itzulia)*

## Lehiaketia



**Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?**

**Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke**

**DEITU BIZKOR BIZKOR**

**943 75 13 04**

**Aurreko aleko irabazlea: Mariaje Iñurrieta (deitu)**

**JABIER ALBERDI**

**HARATEGI**  
ARTISAU ERARA  
**ESPEZIALIZATUA**

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32



**EGUNKARIA**  
**ETXERA ERAMATEN DIZUGU**  
**GEHIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
Tlfonoa: 943 75 13 20



## Ibilixan ibilixan bertso eskolia

# Eneko, Ander eta Argoitz nagusi bertso paper lehiaketan

Eneko Beretxinaga 15 urteko sorailuzetarra izan da, Sorailuzeko II. Bertso Paper Lehiaketako 16 urtetik beherako mailan txapeldun "Herri Bat Selektzio Bat" bertso sortarekin. Pozik dago, bere lenengo txapela jantzi dabela eta, eta pozixago bere maisua, bertso eskolako 3 ikaslek sarixa lortu dabela eta. 2. Ander Elizburu geratu da, "Zorionak Amona" bertso sortarekin eta 3. Argoitz Ariznabarreta, "Gazteak eta dirua" bertso sortarekin. Bertso eskolia aurrera doiala emoten dau, badatoz, badatoz, abildadez eta gogoz!


Bertso eskolakuak idatzitako bertso paper danak, 50 pezetatan izango dira salgai Gaztañerre ferian, danboliñian erretako gaztainekin batera.

1/ *GAZTE NINTZALA, KIROL BAT HARTU  
FUTBOLIAN NAIZ EDERTO MOLDATU.  
ORAIN, URTE BATZUK PASATUTA,  
OSASUNAK NAUKA FITXATUTA,  
ETORKIZUNA,  
BERTAN ESKURATU NAHI DOGUNA,  
GURE HERRIAREN NORTASUNA.*

2/ *GAU PARTIA DA, NAGO ETXIAN  
AITA TA AMAREN ALDAMENIAN.  
TELEFONOA HASI DA JOTZEN,  
INORTXO ERE EZ DA MOBIZTEN.  
HOR JUAN DA AMA,  
KORRIKA BUELATU NEREGANA,  
AMA:  
"KAMATXO DA DEIKA ARI DANA".*

3/ *ZUZENDUA NAIZ TELEFONORA,  
AITA TA AMA DATOKIT ONDORA.  
KAMATXO:  
"GABON ZURI JOKIN OR AL ZARE,  
SELEKZIOAN ZURE ZAI GARE."  
JOKIN:  
"BADA HORKONPON,  
BAIETZAREN ZAIN EZ ZAITEZ EGON,  
OHERA NOA AGUR TA GABON."*

4/ *KAMATXO:  
"ARRAZOIREN BAT EUKIKO DOZU,  
MESEDEZ AZALDUKO AL DOSTAZU."  
JOKIN:  
"EUSKAL HERRIKO SELEKZIÑUA,  
NI NAHIZ BERTAN PARTE HARTZEKUA,  
MAITE DUDANA,*



**Eneko Beretxinaga**

Hona hemen, 15 urte koxkorrekin, bertso eskolan hainbeste estimatzen dogun Enekok osatu daben bertso sorta bikaina:

*OFIZIALTASUNAN ZAIN DAUANA,  
BERAZ EZ NOIA NI ZUREGANA."*

5/ *KAMATXO:  
"EZ DOZU BADA KONPARATUKO,  
GURE MAILA EZ DOZUE LORTUKO."*

*JOKIN:  
"ALPERRIKAN DA, ESAN DOTSUT LEHEN,  
GELDITU BIHAR NAIZELA HEMEN."  
KAMATXO:  
"ONGI DA JOKIN,  
JADA EGIN DOT NAHIKO ALEGIN,  
HURRENGORARTE, ONDO LO EGIN."*

6/ *NAHIZ NIK EZETZA EMON DOTSATEN,  
HORI EZ DAU JENDE ASKOK EGITEN.  
ZURI SORTZEN BAJATZU AUKERA,  
BIDE HORTAN EZ SEGI AUERRERA.  
TA KOLORIAK,  
EZ DEFENDITU GORRI HORIAK,  
BAIZIKAN ZURI BERDE GORRIAK.*

**DOINUA: JUANA BIXENTA OLABE**

**GOITIZENA: BIRIGARROA**

## Horoskopoa

Ygarten Ygartendotela




**ARIES** martxoaren 21etik apirilaren 21era  
Pazientzia birtute bat da, laga bakian bakian dauana.  
**Pil-eguna: 7**



**TAURUS** apirilaren 22tik maiatzaren 21era  
Geografia apurtxo bat ikasi, bestela atzeratuta geratuko zara eta.  
**Pil-eguna: 18**



**GEMINIS** maiatzaren 22tik ekainaren 21era  
Multak ez dira kolektiñuak eiteko, pagatzeko baizik... Edo ez? Edo bai? Nork jakin?  
**Pil-eguna: 16**




**CANCER** ekainaren 22tik uztailaren 22ra  
Tramitiak beti luzera jotzen dabe, badakizu orduan arbolak mantentzeko papel gitxi erabili bihar dala.  
**Pil-eguna: 10**



**LEO** uztailaren 23tik abuztuaren 22ra  
Biaje bat eingo dozu laster, duhan gainera. Zeuk jakingo dozu zelan!  
**Pil-eguna: 3**



**VIRGO** abuztuaren 23tik irailaren 22ra  
Noiz konturatuko zara erretzia osasunandako txarra dala! (Osasunandako txarra bada, Errealandako be...)  
**Pil-eguna: 26**



**LIBRA** irailaren 23tik urriaren 22ra  
Arraina goxo-goxo prestau ezkerro, kontaminatzeko bildurrik barik jan leike (???)  
**Pil-eguna: 8**




**ESKORPIO** urriaren 23tik azaroaren 22ra  
Beti berandu ibiltziak arazuak ekarriko dotsuz etorkizunian.  
**Pil-eguna: 1**




**SAGITARIUS** azaroaren 23tik abenduaren 21era  
Baterixia beti topera erabilizu, bestela gitxiñ espero dozunian bape barik geratuko zara eta.  
**Pil-eguna: 12**



**CAPRICORNIUS** abenduaren 22tik urtar. 20ra  
Gaizki portatzen bazara leginora juañ biharko dozu eta nork daki, igual Afganistanera be bai, Osamakin pote batzuk hartzera...  
**Pil-eguna: 21**



**AQUARIUS** urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra  
Sukaldian desastre bat zara, amama ez da betiko eta ikasi babak zeuk eitxen...  
**Pil-eguna: 20**



**PISCIS** otsailaren 21etik martxoaren 20ra  
Gustoko foball taldia eskastxo dabilela eta dagoeneko jakia aldatzen? Txaketero!!  
**Pil-eguna: 6**

**Telefona 75 24 09**

# ARRANO

## tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

**ETORRI ETA GOZATU**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# etxera

# AGENDA

POXPOLO ETA MOKOLO PAILAZOAK  
(3-10 URTE BITARTEKO HAURRENTZAT)



Azarian 6xan, asteartia,  
Arratsaldeko 17:00etan.  
Plaza Barrixan.

Antolatzailea: Euskararen Aholku Batzordia.

## GAZTAÑERRE AZOKA

Azarian 10ian, larunbata. Erregetxian

Antolatzailea: Udaleko Nekazaritza eta Ingurugiro Batzordia.

Gaztañerre Azoka Egumeko Herri Babajana



14:30etan Bazkarixa Ikastolako Frontoian.  
16:30etan Txan Maguaren magiazko ikuskizuna.  
17:30etan Muganix taldiarekin dantzaldixa.  
19:00etan Herri Poteua Soraluze eta Osintxun.

MENUA: Babak (Txorixo, sahieski, odoloste eta abarrekin... jatetxian prestatuta), postria (gaztainak

eta tartia), kafia, kopia eta purua. **2.000 pezeta.**  
**TXARTELAK SALGAI:** Gila, Lonbide, Aurreku, Txoko, Arrano, Pub, Bolia, Mendata eta Batzokixan.

**Azken eguna: Azarian 8xan.**  
Antolatzailea: Euskalgintza.

## PERRETXIKO LEHIAKETA

(Izen emotia eta oinarrixak Udaletxean azarian 2arte)



**Azarian 11n, igandian,**  
Plaza Zaharrian, goizeko 11:00etan.

Antolatzailea: Udaleko Kultura Batzordia.

## GAZTAÑERRE EGUNEKO AEKREN AFARIXA

**Azarian 12xan, astelehena,**  
Gabeko 21:00 etan. Lekua zehaztu barik.  
Antolatzailea: AEK.

## INFORMATIKA IKASTAROA "INTERNETA ETA POSTA ELEKTRONIKOA", 8 ORDU.

Azarian 17 eta 24an. Larunbatetan goizeko 9:00etatik 13:00era.  
Antolatzailea: Euskararen Aholku Batzordia.

## SANTA ZEZILIA EGUNA Soraluzeko Musika Eskola eta Ezoziko Ama abesbatzaren kontzertuak.

Azarian 22xan, osteguna, arratsaldian.  
Antolatzailea: Soraluzeko Musika Eskola eta Ezoziko Ama Abesbatza.

TXATXILION.KOM. HAURENDAKO  
FESTA. JOLASAK, DANTZAK,  
ABESTIAK...

**Azarian 23an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan.** Plaza Barrixan  
Antolatzailea: Euskararen Aholku Batzordia.

Xabier Amuriza eta Jon Maia  
"MENDE BATEN ALDARRIAK...  
HOGEIGARENEN JARIAK".  
XX. Mendeko bertso gintzaren errepasso bat, bertso



eta kontakizun bittartez egina.

**Azarian 23an, ostirala, gabeko 22:15etan.**  
Udaletxeko Saio Aretuan.  
Antolatzailea: Euskararen Aholku Batzordia.

## ARGAZKI RALLY-A (Izen emotia goizeko 8:30etatik 9:30etara aragazki elkartian)

**Azarian 25ian, igandian.**  
Antolatzailea: Kontrargi Aragazki Kolektibua.

**ARMENDIA  
JATETXEA**

Ezoi Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

**AV** aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
50 Posta Kutxatila Faxe 943 75 22 95  
20590 Soraluze

**Txurritxu**  
gozotegia

Santana kalea, 22 A  
Tfnoa 943 75 24 43

**BATZOKI JATETXEA**

Tel.: 943 751212  
943 752314

Kalebarren, 26  
20590 SORALUZE Gipuzkoa


# ZORIONAK!!!



**Angel Catalan**  
2001-11-18  
**Zorionak!!!!**  
Egun zoriontsua pasa eta segi beti bezain alai  
ZURE EMAZTE ETA SEMEEN PARTEZ



**Felix eta Juan Heras Yanguas**  
2001-10-19  
**Zorionak ta urte askotarako!**  
Zorionak bikote! Muxu handi handi bat gure mutiko biurrereri.  
ETXEKUAK



**Kabier Bengoa Iribecampos**  
2001-10-29 6 urte  
**Zorionak pottolo!**  
Baina, baina nolako handixa egin zaigun gure mutila.  
TXURRUKENGO FAMILIAREN PARTEZ.



**Ugaizt Catalan**  
2001-10-17  
**Zorionak txikito!!!!**  
Hau dok, hau dok, hau dok puru zarra, neuk erretzeko, neuk erretzeko, hauxe dok edarra !  
PIL PILEANEKUEEN PARTEZ.



**Ane Gabilondo**  
2001-10-29  
**Zorionak polita!**  
Muxu handi bat ama eta aitan partez.  
ETXEKUAK


**Mila esker bihotzez, dantza taldeko, kantari eta PIL PILEANEKO guztioi, egun zoragarri bat borobiltzen lagundu zenigutelako. Eztao zuen modukorik!**  
GURURU



**Ainara Bengoa Iribecampos**  
2001-10-16  
**Zorionak ta urte askotarako!**  
Zenbat urte egin dituan gure txikixak... Segi beti bezain txinto eta polita.  
TXURRUKENGO FAMILIAREN PARTEZ.



**Gorka Salaberria**  
2001-10-03  
**Zorionak Txak!!!!**  
Txak beti pozik, Txak beti txapeldun !  
PIL PILEANEKUEEN PARTEZ.



**Markel Albisua**  
2001-10-10  
**Zorionak!!!!**  
PIL PILEANEKUAK ezin dira kexatu laguntza faltaz. Banatzailetik erreportarira. Hori da saltoa hori!!  
ETXEKUAK MAITAZUNEZ



**Maite Laskurain**  
2001-10-23  
**Zorionak!!!!**  
Segi beti bezain fin eta jator.  
ZURE KUADRILA ETA LAGUNEN PARTETIK



**HEMEN ZURE KUTTUNAREN ZORION AGURRA JOAN DAITEKE ANIMATU ETA BIDLAI**

**Sabina Oregi**  
2.001-10-5  
**Zorionak Amama !**  
Batuendako urtiak ez dira pasatzen. Urteak urtera polittagua zare.  
ILOBEN PARTEZ.

**Aitor Beretxinaga**  
2001-10-23  
**Zorionak txikito!!!!**  
Segi beti bezain fin eta jator. Mutikote.  
ETXEKUEEN PARTEZ

## Dohaineko Iragarkiak

PISUKIDE BAT BILATZEN

Lizarran pisua osatzeko  
Interesatuak deitu :

Eskuko telf.: 699 876 702 ( Bittor )

### hildakuak

- Dolores Bergara Elorza
- Manuela Zabala Oregi
- Virgilio Fernandez Martin
- Eusebia Alberdi Atxotegi
- Tomas Mardaras Madariaga

### ezkondutakuak

- Gurutze Ariznabarreta
- Guillermo Ezenarro

### jaixotakuak

- Irati Perez Claver
- Ariane Criado Martin

### iletargixan gorabeherak

Ilberri		Ilbete
Azaroak 15	Azaroak 1 / 30	
Ilgora		Ilbehera
Azaroak 22	Azaroak 8	

### mezen ordutegia

#### Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

#### Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

#### Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),  
11:00tan (umeentzat euskeraz) eta  
12:30tan (elebiduna)



### telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkarte	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apai Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112




### autobusak

PESAKo autobusen  
ordutegia jakitzeko  
**902 10 12 10**  
telefonora deitu

### Pil Pilean Aldizkariko Harpidetza

Egin biharrekua:  
Deitu 943 75 13 04 telefonora eta emon  
biatzia nahi dozun horren izen eta helbidia.  
Gero, sartu 1.000 pezeta (urteko kuota)  
Euskadiko Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan Pil  
Pileanen izenian daren kontuetako baten.





# 100 haur kanta

Piter Ansorenak aukeraturiko haur kanta zahar eta berriak

Takelo, Piritx eta Porrotx

Kixki, Mixki, Kaxkamelon

Tximeleta Mendian

Kalua Testamentua

Ran roberran

Amona Josefina

# 100

Betizu

Pintto Pintto

Txirri Mirri eta Txiribiton

Plisti plaut

Gora, gora

Tele-kantak

**100 haur kanta**

Piter Ansorenak aukeraturiko haur kanta zahar eta berriak

Takelo, Piritx eta Porrotx	Txirula Mirula
Kixki, Mixki, Kaxkamelon	Betizu
Tximeleta Mendian	Pintto Pintto
Kalua Testamentua	Txirri, Mirri eta Txiribiton
Ran roberran	Plisti plaut
Amona Josefina	Gora, gora
	Tele-kantak

Urriaren 27tik aurrera

larunbatero eta igandero

+ 595 pezeta  
24 libera

8 CDz osaturiko bilduma

**Egunkaria**

Urriaren 27tik aurrera

larunbatero eta igandero

+ 595 pezeta  
24 libera

# Egunkaria

8 CDz osaturiko bilduma



**Txuma Murugarren**



*Hegazkinen arima*

Zuzeneko akustiko zein elektrikoak eskaintzen dituen kantari urbanoa.

**OHARRO**

Joseba Irazoki, Berako musikariaren laukote berria. Pop melodiko eta ambientala.

Errepeideak ez ditut maite

Hamar urtetan Pedro Guerra eta Andrés Molinarekin "Taller Canario"n aritu ondoren bere lehenengo lan luzea. Oraingo honetan Tapia ta Leturiarekin.

**rogelio Botanz**



gaztelupeko hotsak

tel.: 943 753 016 / faxa: 9430750 139

e-posta: [gaztelupeko@hotsak.com](mailto:gaztelupeko@hotsak.com)



[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

# Gaztañerre Herri Babajana

Gaztañerre ferixiaren egunian, kuadrilan babajana egitteko ohitura sortu da. Ohitura hori sendotzeko eta herriko kuadrila ezberdinen arteko harremanak haunditzeko, Herri Babajan bat egittia gogoratu jaku. Bazkari simple baina edar bat:

**Babak, gaztainak eta edari pixkatekin, bazkari eta bazkaloste edar bat prestatu nahi izan dogu.**

**la ba, animatu eta etorri babajanera lagun !!**



**Bazkarixaren ostian TXAN MAGUA eta MUGANIX taldiaren kontzertua. Frontoian txosnatxua jarriko da.**

Txartelak salgai: Gila, Arrano, Pub, Bolia, Txoko, Batzoki, Mendata, Lonbide eta Aureskun. 2.000 pezetetan. Euskalgintza eta Udala.